



ADI ORDEZKO! IRALEKO 2. TXANDAKO ORDEZKAPENEN ESLEIPENIK EZ BIZKAIAN!

IRALEko bigarren txandako liberazioen ordezkapenak Araba, Bizkaian eta Gipuzkoan era ezberdinetan banatu izan dira. Araba eta Gipuzkoan, telefono bidezko lanpostu esleipena gauzatzen zen bitartean, Bizkaian, Esleipen Ekitaldi Publiko bat egiten zen. Aurtengoan, **BIZKAIAN ESLEIPENIK EZ** egitea erabaki dute banatu beharreko lanpostuak gutxi izango direlakoan.

Gai honekin, **LABek ESLEIPEN EKITALDI PUBLIKOEN BEHARRA** aldarrikatu nahi du. Lanpostu publikoen banaketak prozedura publikoen bidez gauzatzea exijitzen dugu. Telefono bidezko banaketak ez digu batere bermerik ematen prozesuaren inguruko une-unekeo informaziorik ez dugun bitartean. Zeinek bermatzen digu telefono bidez deitu zaion ordezko bateri une horretan eskuragarri dituen lanpostu guztien artean hautatzeko aukera emango zaionik? Zeinek bermatzen digu lanpostuak ordezkoen zerrendak eskatzen duen ordenean banatuko direla?

EZKERREKO SINDIKATU ABERTZALEA

Puntu honetan LABetik berresten dugu telefono bidezko prozeduraren inguruan protokoloen bat adostea, egiten diren urrats guztiak jasoko dituen eta banaketa prozedurari behar duen gardentasuna emango diona.

Aurtengoan Bizkaian IRALEko bigarren txandako ordezkapenak abenduaren azken astean zehar banatuko omen dira, abenduaren 27tik aurrera alegia.

ADI! GAIKOTASUN BAJAK!

Era berean, gogorarazi nahi dugu datozen eskolarik gabeko bi asteotan zehar gaixo-altako agiriak Ordezkaritzan beharko direla eman eta EZ itxaron oportetatik itzuli arte ikastetxean emateko.

<http://www.labsindikatu.org/sectoreak/irakaskuntza>

Araban
Fermin Lasuen, 13 behea
01001 Gasteiz
Telf.: 945 259 544
Faxa.: 945 258 039
irakaskuntzaaraba@
labsindikatu.org

Bizkaian
Rekalde zumarkalea,62
48010 Bilbo
Telf.: 944 706 900
Faxa.: 944 706 909
irakaskuntzabizkaia@
absindikatu.org

Gipuzkoan
San Bladi 1, behea
20013 Donostia
Telf.: 943 458 562
Faxa.: 943 456 645
irakaskuntzagipuzkoa@
labsindikatu.org

Nafarroan
M.Zelaieta 75, 2.A
31014 Iruñea
Telf.: 948 382 474
Faxa.: 948 221 276
irakaskuntzanafarroa@
labsindikatu.org

Iparraldean
13 Marengo Karrika
64100 Baiona
Telf.: 0559595020
Faxa.: 0559595021
baiona@
labsindikatu.org